



ZIRKULARRA, 2024KO MARTXOAREN 4KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZARENA, 2023KO EKITALDIARI DAGOKION GIZARTE-FUNTSAREN BANAKETARI BURUZKOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko (gaur egun Hezkuntza Saileko) lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen Lan Hitzarmenaren 52 bis artikuluari jarraituz, Gizarte Funtsaren kargurako laguntzetara biltzeko eskabideak aurkezteko deia egiten da.

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

1. artikulua. Laguntzen helburua eta edukia

Zirkular honen helburua da honako hauek arautzea: Gizarte Funtsaren kontura onuradunei ematen zaizkien laguntzen edukia, kudeaketa-prozedura, ebazpena eta ordainketa. Ondoren zehazten dira laguntzen modalitateak:

1. Laguntza protesikoa ikusmena.
2. Laguntza protesikoa entzumena.
3. Laguntza protesikoak ortopedia (erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da).
4. Laguntza odontologikoak.
5. Tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, osasun sistema publikoan barneratuak ez daudenak.
6. Tratamenduentzako laguntza.
7. Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduentzako laguntza.

Laguntzak 2023 urtean benetan egindako gastuei dagozkienak izango dira.

2. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

1. Likidatuko den ekitaldirako baliagarri dagoen zenbatekoa 20.000 eurokoa da.
- 2.- Eskatzaile bakoitzak jasoko du Zirkular honetan ezartzen den eran justifikatutako gastuen batuketaren % 80a, betiere batuketa hori pertsona bakoitzeko 50€ baino txikiagoa ez bada.
- 3.- Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, baldin eta, eskatzaile bakoitzaren gastuen baturaren % 80 aplikatuta, funtsan soberakinik badago, soberakin hori laguntza guztien artean hainbanatuko da, baina beti errespetatuko da eskatzaile bakoitzak guztira jaso dezakeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa zeina pertsona bakoitzeko 1.000€koa izango da, interesdunen borondatek aparteko salbuespenezko kasu oso larrietan izan ezik; kasu horiek Batzorde Parekideak aztertuko ditu.

Laguntzaren zenbatekoa ez da, inola ere, fakturarena baino handiagoa izango.

- 4.- Langile batek Hezkuntza Saileko lan-legepeko hezitzaileen Gizarte Funtsatik 5.000€ jaso baditu, ezin izango du parte hartu hurrengo bi deialdietan.
- 5.- Banatu beharreko zenbatekoa baliagarri dagoena baino handiagoa baldin bada, laguntzak hainbanatuko dira.

3. artikulua. Pertsonal-eremua

- 1.- Ondoren zehazten direnek sor dezakete 1. artikuluan adierazitako laguntzetarako eskubidea:

Lan-legepeko pertsonal finkoa, bakantedun bitarteko kontratua duen pertsonala, sententzia judizialak lan-harreman mugagabea onartu dien langileak eta hurrengo kidegoetako aldi baterako langileak: Hezkuntza Laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, lanerako terapeutak, transkriptore eta materialaren egokitzailak eta Gizarte Laguntzaileak.

Aldi baterako langileek 2023. urtean gutxienez 75 egun lan eginak izan beharko dituzte (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte).

2. Titularrei bakarrik dagokien egoeren inguruko eskaerak hartuko dira kontuan.

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.- Eskaerak **Hezigunea ingurunean jarriko den** berariazko aplikazio baten bidez egingo dira.

2.- **Eskaera bat aurkeztuko da eskatzen den laguntza-modalitate bakoitzeko.**

3.- Eskaerak **2024ko martxoaren 5etik apririlaren 12ra bitartean** (bi egunak barne) aurkeztu ahal izango dira.

5. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa.

1. Eskabide bakoitzarekin batera laguntza-modalitate bakoitzean eskatzen den dokumentazio espezifikoa aurkeztuko da, PDF formatuan, jatorrizko kopiekin bat etorriz. Horretarako, eskatzaile bakoitzak Heziguneko aplikazioan bertan agertuko den erantzukizunpeko adierazpen bat berretsiko du.

2. Espedienteak ebazteko behar diren datuak egiaztatu eta argitzeko, Administrazioak eskatu ahal izango die datu horiei buruzko dokumentazioa edo eskatzaileen administrazio edo lan egoerari buruzko dokumentazioa beste sail, erakunde, administrazio edo entitateei.

6. artikulua. Kudeatzeko prozedura

1. Zirkular honen publizitatea Saileko webgunean egingo da. Hala ere, egoki irizitako beste prozedura batzuk ere erabili ahal dira informazioa langile guztiei helarazteko.

2. Eskabideak Mahai parekideak ebatziko ditu.

3. Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpen bidez argitaratuko da ebazpena emandako eta ukatutako laguntzak jasoko dituen, eta horren kontra erreklamazioak aurkezteko epea 7 eguneko izango da. Ebazpen hau hezigune bidez jakinaraziko da.

4. Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena egingo da. Aurretik adierazitako bide beretik jakinaraziko da.

5. Ordainketa nominaren bitartez egingo da.

6. Fakturak ez baldin badira ordaintzen sortzen diren urte berean, ordainketa egiten den eguna hartuko da aintzakotzat dagokion ebazpenerako. Ondorioz, 2023eko gastuak direla ulertuko da 2023. urtean egindako ordainketak.

7. Funtsa lehenengo fasean agortuko da eskaeren diru-zenbatekoa zenbateko erabilgarriaren berbera edo handiagoa baldin bada. Bide judizialek ebazten diren eskaerak hurrengo urteko Gizarte Funtzaren kargura ordainduko dira.

7. artikulua. Bateragarritasunak

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina-aurrerakinekin, aurrerakin itzulgarriekin edo nominan hileroko atxikipena dakarren administrazio publikoaren beste edozein prestaziorekin.

8. artikulua. Bateriaezintasunak

Zirkular honetako laguntza-modalitateak bateraezinak dira gertaera eragile berberengatik beste edozein entitate edo erakunde publikok emandako antzeko beste laguntza ekonomikoekin, jasotako tratamendua edo erositako protesia baino zenbateko txikiagokoak direnean izan ezik, kasu horietan aldea eskatu ahal izango baita, laguntza horien nondik norakoa eta zenbatekoa agiri bidez egiaztatzen bada.

Aurreko puntuetan aipatzen den kasuan interesdunek jasotako laguntza txikiagoen zenbatekoa kenduko zaio Gizarte Funtzaren aplikaziotik datorren laguntzaren azken zenbatekoari.

Edozein kasutan, eskaera egiten duen pertsonaren erantzukizuna izango da eskaera ez aurkeztea eragile berberengatik beste edozein entitate edo erakunde publikok emandako antzeko beste laguntza ekonomikoak onartu bazaizkio eta, laguntza hori protesi edo tratamendua baino txikiagoa bada, laguntza horien nondik norakoa eta zenbatekoa agiri bidez egiaztatzea.

"Laguntza protesikoa ortopedia" izeneko 3. laguntzarako, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, 1. eranskinaren arabera.

9. artikulua. Faltsutasuna eskabideetan

Datuak ezkutitzeak, aurkeztutako dokumentuetan datu faltsuak jartzeak edo eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak haxe ekarriko dute: eskatutako laguntza ukatzea, edo emandako laguntza galtzea. Azken kasu horretan, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu interesdunak, eta Zigor Kodearen 390. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako erantzukizun penalak eta sor litezkeen erantzukizun zibil eta administratiboak eskatu ahal izango zaizkio.

II. KAPITULUA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

10. artikulua. Laguntza protesikoa eta odontologikoa

1.- Modalitate honen bidez, prestazio ekonomiko bat emango da, protesi hauek eskuratzeko gastuei aurre egiteko:

1. Begi-protesiak:

- Kristalak berritzea
- Ikusmena zuzentzeko lentillak (mantentze-likidoak ez dira sartzen)

Kristalak berritzearen kasuan, laguntza bi urtean behin jaso ahal izango da, likidatzen den ekitaldiko gastuak erreferentziatzen hartuta.

Gastu horrek armazoiak erostea barne hartzen badu eta horien zenbatekoa zehazten ez bada, fakturaren zenbatekotzat hartuko da haren guztizko kopurua % 30 murriztuta.

2. Entzumen- eta fonazio-protesiak:

- Audifonoak

3. Protesi ortopedikoak:

- Plantillak
- Gerrikoak
- Konprimatze-galtzerdiak

4. Hortz gastuak:

- Endodontziak
- Fundak (endodontzien ondoriozkoak)

5. Kirurgikoak ez diren beste protesi batzuk eta/edo aparatu bereziak:

Kirurgikoak ez diren protesiei eta aparatu bereziei dagokienez, hauek baino ez dira kontuan hartuko laguntzetarako: osasun-sistema publikoaren edo mutualitate-sistemen prestazioen zerrandan azaltzen ez direnak (ileordeak)

6. Tratamenduak

- a) Tratamendu psikologiko eta psikiatrikoak
- b) Foniatria.

7. Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduak

Dokumentazioa:

a) 1 puntuan deskribatutako laguntzarentzat sendagile eta/edo optikariaren egiaztatzea, Gizarte Funtsean aurkeztu den pertsonaren patologia, dioptrien kopurua eta abar adierazten duena.

2 puntuan deskribatutako laguntzarentzat Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den protesia eskuratzeari beharra. Erosketa ondoren eginiko txostenek ez dute balioko.

3 puntuan deskribatutako laguntzarentzat Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den protesia eskuratzeari beharra. Erosketa ondoren eginiko txostenek ez dute balioko.

4 puntuan deskribatutako laguntzarentzat ez da eskatuko ez dentistaren ez Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostenik.

5 puntuan deskribatutako laguntzarentzat Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den protesia eskuratzeari beharra. Erosketa ondoren eginiko txostenek ez dute balioko.

6 puntuan deskribatutako laguntzarentzat Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den tratamenduaren beharra. Tratamenduaren ondoren eginiko txostenek ez dute balioko.

7 puntuan deskribatutako laguntzarentzat Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak aldeztu aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den tratamenduaren beharra. Tratamenduaren ondoren eginiko txostenek ez dute balioko.

b) Jatorrizko fakturak. Ondasuna erosi edo tratamendua jaso den establezimendu espezializatuek igorritako fakturak beharko dira. Fakturak jaso beharrekoak: IFK/IFZ, "hartu-agiria", data eta sinadura, baita eskuratutako ondasunaren edo tratamenduaren xehetasuna eta eroslearen edo tratamendua jaso duenaren izen-bizitza eta helbidea ere.

c) Fakturen zenbatekoa edozein bidez ordaindu izana egiaztatzea.

11. artikulua.- Kotizazio-oinarria

Gizarte Funtsa banatzearen ondoriozko laguntzek Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren kotizazio-oinarria osatuko dute, betiere indarrean den araudian aurreikusitakoaren arabera

12. artikulua.- Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: *Langileak kudeatzea*.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa (2004ko ekainaren 17ko EHAA, 114. zk.).

Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/qardentasuna/048100-capa2-eu.shtml

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 4an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA GUERRERO OCEJO